

1900

Euskal-itz jostaldien Batzarrea

(Euskal-festen XIX-garren urtea)

ERREGIETAKO FERIYA ERRI CHIKI BATIAN⁽¹⁾

Bitezar onragarriya Zumayan irabazitako moldaera

(ON IGNAZIO BELAUSTEGI APAIZ JAUNARI DONKITUA)

I

—Nola ematen duen argiya
 egun berriyak zabaldutzean,
 nola alaitzen diran soroak
 intzak gozoro laztandutzean,
 iturri chiki esnatzen dana
 chor chor agurka bere pozean,
 ala dirade iru Errege
 Sortaldetikan jende taldean
 saroirik saroi, ibarrik ibar,
 joango diranak gaur arratsean,
 izar argiyak lagun egiñaz
 gozoz Belena zuzen bidean,
 zeren ezdiran oyeratutzen
 izarrak, lagun diradenean.

Lotaratu zan aize biguna

usai gozozko lora gañean,
 astindu eta zabaldutzeko
 egal ariñak, esnatutzean;
 alchatuko da berrioren
 ekartzallea eguantzean,
 geldi emanaz bere begiyen
 argi doi doya mendi atzean
 eta ondoren eguzki printzak
 lanbro urtsuak garbitutzean,
 sortuko dira urrezko soñak
 diz diz egiñaz mantu luzean;
 zaldi ederrak ariñ jiriaz
 mundu osua ordu betean,
 banatuaz chit pastel gosuak,
 jostalluchoak, leku danean,
 multicho bizi diranarentzat
 landechean ta eche pobrean.—

(1) Fuera de concurso.

Onela ziyon erri chikiko
apaiz on batek, chit boz aulean,
mutiko koskor berritsuari
echerakuan, illun aurrean,
chigor bidera ateratu ta
jartzen ziranak jiran urrean,
bere eskua musuz bustiyaz
ziñez leyaka ta jan nayeane,
zirrindatuaz bizkar gañeko
manteo sarra ichumenean,
erabilliyaz ostoak nola
arbolak galtzen dituztenean.

—¿Beraz benetan? oju larriyan
galdetzen ziyon apaiz jaunari.

—Bai, nere ume biyotzekuak—
itz eztitsuan gozoz berari
erantzun eder atsegiñ artan
poza sartuaz mutill ayeri.
—Orain echera zuazte danak;
afaldu eta esan amari,
oyeratzeko errezatuaz
loak artzeko Jesús onari
eta goizean esnatutzean
leyo chuluan, joaten dan ari
an arkituko ditu feriyak
guztiz politak eta ugari.—

Entzun da mutill biurritsuak
soño goiztarren gisa kantari
bakoitzak bere erregaliyak
pachandi aundiz alkar kontari,
banandu ziran choratu nayan
zabaldutzero mundu danari,
erretoriak bidez deituaz
bere atean echekoari.

—¡Eman bezayo, erregutuaz
bear guziya Erregeari,
zabal dezaten gaur arratsean

neurri gaberik zorion ori,
pechuan ezti egiazkuak
fedez sentitzen dituztenari,...
jala gai onez naidakiyola
zeruetako Jaun aundiari!—

Kazkarabarrak oyera ziran;
zentzu gabeko ojulariyak:
etziñ orduko loak artuak
egiñaz amets zoragarriyak.

Manta azpiyan bildurik kizkur
nola chuluan erbi chikiyak
gorputz zegallak arillen gisa,
idurituaz gauza aundiak.

Zerua urdiñ, izarrak milla
argi emanaz, zoro jaikiyak;
iru Errege Sortaldetikan,
ikustekuak, miragarriyak.

Ordu onian ezkutatuak
odoi illunak, laño churiyak
ta errenkara luze luzean
mendi arkaitz-dun, arbol tantai-
idurituaz amets gozoan [yak,
zirala beren zelatariyak.

Gamelu¹ nabar lepo uztaitu
eta konkorr-dun izugarriyak,
beren gañean ondo beterik
tontorreraño zume sakiyak
eramanaz chit kontuz aurretik
mutill beltz morroi serbitzariyak.

Autsak alchiaz zeruetara
indar aundiko zaldi biziak
eta atzetik errenkada bat
igarotuaz bide goitiyak,
nola arrano ausarta gaisto
begi zorrotz-dun arrapariyak.

(1) Camello.

¡Amets gozotsu atsegintsuak
pozturik beren iruditiyak,
zabaldurikan biyotz samurrak
ume fedetsu jostalariyak,
¡zer zorionez jaikiko ziran
jabetutzea beren feriyak!

II

Egun sentiyan kanpan torreko
argi-ezkillen *tin tan* otsera,
deituaz alai errikoari
jai egun ura ospatutzero.

Eliz illun bat, cHoko chokuan
argi ontziya zarchua bera,
emanaz argi eskas doi doya
zirudiyena loak artzera.

Amonachuak irten ziraden
illobarekiñ fedez kalera,
illargiyaren argi ubelak
lagun egiñaz eliz-echera,
zeruetako bide zuzenak
nola ziraden erakustera.

Meza santua entzun da gero
biltzeko denak leku batera,
amonachua errez lajata
salto pozian ziran atera,
aize iparrak ondar che-chien
moduan dena zabaldutzero.

—Neri pastel bat krema duna ta
artua baña aundiyagua;
talo beruan guritutzen dan
gazta bañore guriyagua.
—Neri tronpeta luze luze bat.
—Neri tanborra ots aundikua,
echealdeko Juanenak baño
amar aldiz ots geyagokua.

—Neri abarka-zapiyak eta
lotzeko soka biur sendua.
—Neri zaldi bat korrikariya.
—¿Ez aldeke obe almendrazkua?
—Nik pistola bat basoko pizti
gaisto guziyak *pun* illtzeakua...
—¿Zeñ da ill kontu ari dan ori?
¡zeñ da diyona, Jaun zerukua!....
apaiz onaren boza entzun zan
gozotsua ta egizakua.

Beraren gana beso zabalka
egaatutzen dan gisa usua,
ariñ joan ziran far-irrichuan
musututzero bere eskua,
bor bor itzian ariyaziyaz
jaiki eta zer izandakua.
—¿Ez nizuten nik esan maiteak
guziya zala sinistekua?
¡izan zaiztezte umil leyalak
egiñaz beti esandakua
eta Jaunaren aldamenian
billatutzen du onak lekua!

Gero emendik joango gerade
erakutsiyaz fede sutsua,
adoratzera Erregiak ta
alabatzero egun santua.

.

¿Baña negarrez zeñ dago emen?
diyo jasorik nagi besuak.
—¡Josecho dago!

—¿Zer du Josechok?
¿nere mutilcho pocholochuak?
¡Atoz nigana; ¡konta nazazu!
emanaz musu chit ezitsuak,
patrikeratik ateratuaz
isil zedien gauza goñuak.
—¿Amari zerbait egiñ altzayo
nola egiten duten gaistuak?

—¡Ez, jauna; ezta olako ezer!
 —¡Maite dituzu zuk gurasuak!. . .
 ¿Zer dezu bada orla negarrez?
 ¿Zer dira zure gaurko izuak?
 —¡Jauna, amari ikusi dizkat
 begiyetatik beera malkuak
 eta negarrez orrek jarri nau
 zergatik diran mingartizkuak.
 Au esan eta kanporatutzen
 zitzaizkan samín zispiriyuak.
 —¡Ta zer geyago!

—¡Jauna, eztakit,
 baña diyonez aitonachuak,
 nere arreba chiki Julita

zeruratudu gaur Jaungoikuak!. ..

—¡Jesús nerea! amarentzat zer
 naigabea ta ordu mintsuak,
 —ziyon—apaizak boz itzaliyan
 emanaz doi doi, nagi, pausuak,
 beraren jiran bildu nayean
 atsegintzeko pozgabetuak....
 ¡Itzikan gabe, alkar begira,
 denak aín illun, aín tristetuak,
 sentiyaz zerbait konta eziña
 ume jostallu ayen pechuak,
 banandu ziran iñil iñilik
 beren echera! ¡Gizagaiñuak!

VICTORIANO IRAOLA.

